
Finala bizi





FINALA BIZI

Iritsi da finala! Hainbeste saioren ostean, 43 bertsolarik beren onenak eman eta gero, horra denek desiratzen zuten igandea: abenduak 13. Bertan dago gainerako 7 finalisten zain, Andoni Egaña.

Egun hori berezia izango da bertsolarientzat, berezia izango da BECen bilduko diren 13.000 ikuslerentzat, eta berezia izango da hedabidetatik saioa zuzenean jarraituko duten milaka eta milaka euskaldunentzat. Tentsioa, poza, txalo zaparradak, algarak, isiluneak... BIHOTZA gailentzen zaio hitzari.

Gaur egun hori bizitzeko prestatuko gara. Sentitzen ditugun emozioez, bertsolariak finaleko une bakoitzean bizi duen egoeraz eta publikoaren sentipenez kontziente izateko prestatuko gara. Horretarako, gaurko saioan 2005eko finaleko une berezienak gozatzea da egingo duguna.

Horrela, abenduaren 13an, aurtengo finala ikusten dugunean (BECera bertara joanda, edo etxetik telebistaz, irratiz edo internetez jarraitzen dugunean), ondo baino hobeto ezagutuko ditugu zein diren saio horren atzeko sekretuak.

Finala pasa eta elkartzen garenean, egun hori bakoitzak nola bizi izan duen komentatuko dugu.

Goza dezagun, bada!



BIZI DEZAGUN 2005ekoa

Ikusi, entzun, eta sentitu

- Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa lau urtean behin jokatzen da. Honen aurrekoa 2005ean izan zen. Finala BECen ospatu zen lehen aldian izan zen hura, Barakaldon, Bizkaiko Ezkerraldean. Eta lehen aldian zen final batean hainbeste entzule bildu zena: 13.000 euskaldun elkartu ziren.

- Bideoa jarriko dugu, eta 2005eko egun hartara egingo dugu salto. Publiko artean gaude. Sentitu ditzagun egun hartan bizi izandako emozio ezberdinak.

Bideoaren atal bakoitzaren ostean, irudia gelditu egingo dugu gure sentipenez hitz egingo.



EMOZIOAK KONTZIENTE EGITEN

Bideoaren atal bakoitza aztertzeko galdetegia

1. Hastear da finala

- Bertsolariak agertu direnean publikoa zutitu egin da, txaloka. Zein emozio sentitu ote dituzte bertsolariek, oholtzara bidean zioazela? Zuei gustatuko al litzaizueke euren tokian egotea? Zergatik?

2. Ofizioka edo binaka

- Umorezko saioak ikusi ditugu. Zuentzat zein izan dira kolperik onenak?

3. Kartzelako lana

- Gaia entzun eta bertsolaria kantuan hasi bitarteko denbora, luze egin al zaizue? Denbora tarte horretan, zer pentsatu ote du bertsolariak, edo zein erabaki hartuko zituen?

-Zuek zer esango zenukete gai horren aurrean?

4. Bakarka

- Txapelketa bat ikusten ari gara. Beti ez da irabazten. Zuek ere galduko zenuten, lehiaren batean. Noiz pasa zenuten tragorik txarrena? Eta zer esan zizueten ingurukoek?

5. Buruz burukoa

- Izenak esan dituztenean, oholtzara zeuden bertsolarien artean zer emozio nahastuko ote ziren?

6. Txapelduna

- Zuek nor espero zenuten Txapeldun?

- Txapela janzteko unea, gailurra izaten da. Imanol Lazkanok jantzi zion txapela; bertsolaria eta urtetan Bertsozale Elkarteko Lehendakaria izandakoa da Lazkano. Biak hunkitu ziren asko. Bakoitzari zer mugitu ote zitzaion barruan, hala hunkitzeko? Jar gaitezen Lazkanoren eta Egañaren lekuan.



Finala. Erritual horren momentuak eta emozioak

- Final guztietan, atal edo momentu jakin batzuk errepikatzen dira: finalak bere errituala du, mantentzen dena. Ikus dezagun zein diren finaleko atal jakin horiek, eta atal bakoitzak sorrarazten dituen emozioak.

- Hara hemen finala erretratatzeko duen irudia: hauxe da finalaren egitura, errituala. Guztion artean, argazki bakoitzaren azpian idatziko dugu zein momentu den hori, eta une horri zer emozio lotzen zaizkion. Hasteko, irakurri dezagun finaleko momentuen zerrenda, eta zalantzak argitu ditzagun.

Momentua	Emozioa
<ul style="list-style-type: none"> -Txapeldunaren agurra -Publikoa eserita, zain. BEC bete da. -Buruz burukoa -Txapela janzteko unea -Kartzelako lana (bakarka) -Bertsolarien sarrera BECen -Ofizioka -Txapelduna nor den esaten den unea -Hasierako agurrak 	<ul style="list-style-type: none"> -Umorea -Tristura -Tentsioa -Euforia -Hunkitzea (negarra eta irria batera) -...





.....

.....

.....





.....

.....

.....



**AZKENIK FINALEAN**

Gozatu ditugu 2005eko uneak. Ezagutzen ditugu finalaren atzeko sekretuak: errituala osatzen duten momentuak, eta emozioak. Orain, aurtengo final handia bizitzeko aukera dugu.

Abenduaren 13an, BECera joateko asmorik duzue? Bestela, etxetik ere finala zuzenean jarraitzeko aukera izango dugu: telebistaz, irratiz zein internetez. Liburuxkako hedabideen taulara jo (5. orria) eta gogora dezagun nondik jarraitu genezakeen finala.

**NI HAN IZAN NINTZEN**

Pasa da finala. Bukatu da Txapelketa. Hitz egin dezagun bizitakoari buruz. Ikusi al zenuten finala? Osorik, ala zatiren bat? Zein zati?

2009ko Txapelketa Nagusiko Finalaz hizketan

- **Lekua eta giroa.** BEC zer iruditu zitzaizuen? Zer inpresio eragin zizuen?
- **Publikoa.**
 - Zenbat ikusle bildu ziren?
 - Zein ezaugarri zituen publikoak? Zer adineko jendea zen, nongoak ziren...
 - Zer jarrera zuen publikoak? Beroa, hotza, animatzekoa...
 - Zuei zer emozio eragiten zizkizuen publikoak?
- **Bertsolariak, nola zeuden?** Urduri, gogotsu, saioan sartuta bete-betean, asmatu ezinean...
 - Zuei zein bertsolari gustatu zitzaizuen gehien? Zergatik?
- **Saioa orokorrean, zer moduzkoa atera zen?** Ona, pattala, gorabeheratsua...
- **Zein momentu edo bertsoaldi izan ziren zuentzat aipagarrienak?**
 - Zein zen gaia?
 - Saioko zer unetan zen? Ofiziokakoa, kartzelakoa, puntuka, buruz burukoa...
 - Zein bertsolarik abestu zuten?
 - Zer esan zuten? Gogoratzen duzu doinua? Eta bukaerarik, edo errimarik, edo hitzik/esamolderik?
 - Publikoak nola erantzun zuen?
- **Buruz burukoa**
 - Nortzuk iritsi ziren buruz burukora? Zuek bi bertsolari horiek espero al zenituzten?
 - Zer ariketa egin zituzten, buruz burukoan?
 - Eta bakoitzean, gaia zein zen?
 - Zer esan zuten? Gogoratzen duzue doinua? Eta bukaerarik, edo errimarik, edo hitzik/esamolderik?
 - Buruz buruko saioa entzunda, nor espero zenuten txapeldun?
- **Txapelduna izendatzeko momentua**
 - Txapelduna nor zen jakiteko zain geundela, zer sentitzen zenuten?
 - Eta txapeldunaren izena esan zutenean?
 - Nork jantzi zion txapela? Zer emozio eragin zizuen?
 - Txapela nori eskaini zion? Zer sentitu zenuten?



